



BARREN  
TOKIKOM

# Aizkoltxoko altxor ezkutatuak



SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

943 744 457

## QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedeen betea hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egindakoak.



# ETXE BERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
info@funerariaetxeberria.com  
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Jon Aranao  
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenez ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.

## EXPRESS ESKAINTZAK!

LG F2DV5S85SZW ARROPA GARBIGAILU-LEHORGAILUA

599 €

Garbiketa 8,5 kg.  
Lehorketa 5 kg.  
1200 R.P.M.

GARBIKETA



LEHORKETA



- Direct Drive™: ehunaren eta kargaren ezaugarriak detektatzen ditu
- Garbiketa perfektua egiten du
- Vapor Steam™: Bakterioak, alerfenoak eta hauts-akaroak ezabatzen ditu
- Edukiera handia, 47 cm-ko hondoa mumiztuarekin.
- Marken kontrako kristal tenplatuzko atea.
- Aitzairu herdoigaitzezko irabiagailuak: higiegn handiagoa, iraunkortasun handiagoa eta jantzien zainketa.
- WiFi konexioa THINQ™ aplikazieraren bidez.
- Turbowash 59 min. Amaiera geroratu: 3-19 h.

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA

## CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



## ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



## Aurreiritziak

identitate horri zilegitasuna emateko.

Alderdi linguistikoari helduz ere, gure imaginarioan jadanik sorturik dugun aurreiritzi multzoaren ondorioz erabakitzen dugu nori zuzendu euskaraz, nori gaztelaniaz, eta nori gaztelania motel eta makarroniko bat erabiliz.

Denbora kontua izango da agian, eta aurrerago ohituko gara errealitate berriekin bizitzera, baina egon badaude familiak atzerititik Euskal Herrira etorri badira ere, bertan jaio diren seme-alabak; horiek txikitatik euskaraz eskolatu direnez, zu eta ni bezain gai izango da euskaraz hitz egiteko. Eta hor dator une

deseroso hori, "ni gaztelaniaz zuzendu naiz eta berak euskaraz erantzun dit", lotsa eta ezinegona. "Hurrengoan euskaraz fijo". Eta hurrengo aldi hori iristen da eta gaztelania hautatuko duzu beste behin, eta agian solaskideak ere gaztelaniaz erantzungo dizu, agian ez du euskaraz ulertuko, eta ez zara deseroso sentituko, eta beraz, ahaztuko zaizu azkeneko aldi hura. Eta zure aurreiritzietan bueltaka jarraituko duzu.

Uneoro asmatu behar dugu nori egin euskaraz eta nori gaztelaniaz, eta zaila da aurreiritzi arrazista horiek albo batera uztea, baina unean uneko egoera konkretuei soilik eusten badiegu segituan ahaztuko zaigu behinola deseroso sentiarazi gintuen elkarriketa hura. Lanketa aktiboa behar dugu, gure hizkuntza eskubideak lehen lerroan jarri eta aurreiritzi arrazistak baztertuko dituen. Izan ere, argi dago urtean behin lotsa hori pasatzeak ez digula aurreiritzi horiek albo batera uztea ekarriko.

*"Badirudi aurreiritziak behar ditugula geure identitatea betikotzeko eta horri zilegitasuna emateko"*

Ez dago dudarik, aurreiritziz josiriko gizartea osatzen dugu. Botere hegemonikoak eginiko prestigio eskalaren arabera izango dira oraindik ezagutzen ez ditugun pertsonen inguruko epaiak. Aurreiritzi horiek arrazistak, klasistak eta beste -ista asko izaten dira, eta natural hartzen ditugu, natural baneratu eta natural erreproduzitu. Aurreiritzi horiek erabiltzen ditugu gure erosotasuna bermatu eta aldi berean edozein gorabeheraren errua pobrezia, indarkeria eta antzeko kontuekin lotzeko. Badirudi aurreiritziak behar ditugula geure identitatea betikotzeko eta

 <p><b>BARREN</b></p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p><b>ELGOIBARKO IZARRA</b> Euskarazko Topagunea</p>	<p><b>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR</b> 943 744 112</p> <p><b>Publizitatea: 943 743 704</b></p> <p><b>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus</b> <b>barren@elgoibarkoizarra.eus</b> <b>www.barren.eus</b></p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enrantzukizunik.</p> <p><b>KOORDINATZAILEA</b> Ainhoa Andonegi <b>KAZETARIAK</b> Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia <b>HIZKUNTZA ARDURADUNA</b> Ainara Argoitia <b>PUBLIZITATEA</b> Leire Rubio <b>MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA</b> Zaloa Arnaiz <b>ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA</b> Aitor Lauzirika <b>ADMINISTRARIA</b> Amaia Arrizabalaga <b>KOLABORATZAILEAK</b> Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola <b>INPRIMATEGIA</b> Gertu Koop.E. <b>TIRADA</b> 4.885 ale <b>LEGE GORDAILUA</b> SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b></p>
--	--	---



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ MARTXOAK 8!

Uluka Batukatik ahotsa altxatzen jarraitu nahi dugu, martxoaren 8an eta urteko beste 364 egunetan berdintasunerako pausoak emanez eta desberdintasunaren ondorioak jasaten dituzten emakume guztiei lagundu behar zaiela gogoratuz. Hori dela-eta, kalera irtetea erabaki dugu, orain inoiz baino gehiago, ezerk ez gaituela geldiaraziko erakutsi nahi dugu, baina ez dugu inoren bizitza arriskuan jarri nahi. Horregatik, martxoaren 8an kalean izango gara, baina bakarrik, herritarrak parte hartzera deitu gabe. Ez dugu jendetzarik bildu nahi eta horregatik eskatzen dizugu, oraingoan, gure deia fisikoki ez erantzuteko; balkoietatik eta leihoetatik egin dezazula bat gurekin. Jantzi ditzagun gure balkoiak morez.

**Uluka Batuka**

### ▶ EKAITZAREN OSTEAN BADATOR BAREALDIA

2018, a zer nolako urtea! Gure bizitza badirudi urte hartan gelditu egin zela. Zer esango dugu! Kolpe latza jaso genuen eta badirudi ordutik ur gainean alde batera eta bestera gabiltzala, ozeanoaren erdian, norabide finkorik gabe.

Baina bada garaia bizitzak eskaintzen dizkigun aukera berriei tinko heltzeko eta gure ontziaren norabidea zuzentzeko. Horretarako, denok batera egingo dugu arraun, eta portura iristean ospatuko dugu garaipena. Julio eta Arantxa, zuekin gaude. Jo eta ke, irabazi arte!

**Arregitorre Teko tripulazioa**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitzik argitaratuko.

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean



BARREN



**943 743 704**

**688 769 657**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Lerungo industrigunean pretila hondatuta dago:** "Lerungo industrigunean pretil zati bat falta da aspalditik, eta bi baranda daude han jarrita. Jende asko joaten da zonalde horretara pasiaran, eta umeen ere joaten da jendea, bizikletan ibiltzen erakustera asko. Oso arriskutsu dago inguru hori, eta umeren bat ibaira erori daitekeela iruditzen zait. Eskertuko genuke pretil zati hori lehenbailehen konpontzea". Hirigintza Sailetik esan dutenez, Lerungo industrialdea oraindik pribatua da: "Laster lizitatuko dituzte jabetzatik industrialdearen urbanizazioa bukatzeko lanak, eta horien artean dago industrialdeko barandak, estolderia eta bar konpontzea. Udala eta jabetzaren artean adostutako proiektuak jasotzen ditu baranda hauek behin eta berriz ez apurtzeko neurriak".



**Ikastolako aldapan dauden estoldak oso arriskutsu jartzen dira euria egiten duenean:** "Estoldak oso labainkor jartzen dira bustitzen direnean, baina bereziki, ikastolako aldapan daudenak kontuan hartzea eskatuko nuke. Ume pila bat ibiltzen da ingurune horretan, askotan korrika eta presaka, eta estoldetan labain eginda lurrera erortzen dira. Hemen euri asko egiten du, eta iruditzen zait zerbait egin behar dela horrelakoak ekiditeko. Joan zen astean bertan ume batek sekulako kolpea hartu zuen. Oker ez banabil, Eibarko estoldak tratamendu berezi bat daukate emanda erorikoak ekiditeko. Ezingo litzateke horrelako zerbait egin Elgoibarren? Hirigintza Saileko arduradunak azaldu du estolderia bakoitzak jabe bat daukala, ematen duen zerbitzua araberak, hau da, jabeak izan daitezkeela Telefonica, Gipuzko Urak, Udala... Dena dela, estolda horiek zein egoeratan dauden begiratuko dutela esan du, eta konponbideren bat aurkituko dutela.



**Urazanditik Santa Klarara doan bidean uzten du norbaitek zaborra:** "Izugarrria da. Jendeak edozein lekutan lagatzen du zaborra! Urazanditik Santa Klarara doan bideko farola baten kontra behin baino gehiagotan ikusten dira zabor poltsak. Ez dago eskubiderik horrelakoak egiteko. Ez ditut ulertzen horrelako jokabideak. Errespetua eskatu nahiko nuke, eta mesedez, zaborra dagokion lekura botatzea".

## 'Establezimendu lagunkoia' kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Udalak



○ stalaritza eta merkataritza establezimenduak adinekoen beharretara egokitzeko, *Establezimendu Lagunkoia* ekimena jarri du martxan Elgoibarko Udalak, eta herriko establezimenduak animatu nahi dituzte egitasmoan parte hartzera. Programa honen bitartez, aholku bidezko hezkuntza jasoko dute merkatariek eta ostalariek, eta kostu txikiko edo kosturik gabeko hobekuntzak eginda, negozioei bezero adinekoagoak erakartzen lagunduko diete. Interesa duten establezimenduek honako lotura honetan eman dezakete izena (<https://labur.eus/establezimendulagunkoia>) edo posta elektronikoki bidez ([elgoibarlakunkoia@elgoibar.eus](mailto:elgoibarlakunkoia@elgoibar.eus)). Martxoaren 16a baino lehen egin beharko dute. Martxoaren 24an aurkeztuko dute proiektua, 14:45ean Aita Agirre kulturgunean.

## 1936ko gerrako 110 gorpu atera dituzte lurpetik Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian

1936ko gerrako hobiak ikertu eta lokalizatzeko planaren balantzea egin du Eusko Jaurlaritzak, eta azken 18 urteetako lanaren emaitza aurkeztu zuen joan zen barikuan, Bilbon. Datu horien arabera, 1936ko gerran hildako 110 lagunen gorpuak berreskuratu dituzte Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. Lurpetik ateratako 110 gorpu horietatik 70 gudar edo milizianoenak dira, 26 epaitu gabe fusilatutako herritarrenak eta gainerako hamalauak preso edo atxilotuta zituztela hil zirenenak. Identifikatutako gorpuetako batzuk Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan daude lurperatuta, Olasoko hilerrian. Jarraian dituzte daturik esanguratsuenak:

- 128 lokalizazio bilatu eta ikertu dituzte, eta 46tan hobiak aurkitu dituzte: 24 Bizkaian, 15 Gipuzkoan eta 7 Araban.
- 110 pertsonen gorpuzkiak berreskuratu dituzte: 108 gizon eta 2 emakume.
- Hobitik ateratako 110 bikimetatik 27 identifikatu eta haien familiei entregatu dizkiete. Gainerakoak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan eta hobiak lokalizatu diren udalerrietako hilerrietan daude.
- Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian lurpetik ateratakoek gain, beste bederatzita pertsonaren jatorriz EAEkoak gorpuzkiak berreskuratu dituzte eta familiei eman dizkiete. Nafarroan lau desobiratze egin dituzte, eta beste lokalizazio batzuetan, bost.

## Langabeziak behera egin du otsailean Debabarrenean

Debabarreneko herri guztietan egin du behera langabeziak, Mutriku izan ezik. Guztira urtarrean baino 45 langabe gutxiago kontabilizatu dituzte eskualdean, eta abenduko maila berean da berriz ere langabezia-tasa. Hona hemen Debabarreneko otsaileko datuak, herriz herri: Eibar 1.681 (%13,19), Elgoibar 525 (%9,49), Mendaro 78 (%7,89), Deba 193 (%7,24), Mutriku 234 (%8,79), Sorluze 258 (%13,77), Debabarrena 2.969 (%11,22).

## Autobus zerbitzua indartzeko eskatu du EH Bilduk

Erabiltzaile gehien dauden ordu tarreetan herri barruko autobus zerbitzua indartzea proposatu du EH Bilduk. Udaleko gobernu taldeari eskatu dio herri autobusaren erabilerari buruzko azterketa egin dezala, uste duelako puntako orduetan ematen den zerbitzuak ezin diola eskariari erantzun. Era berean, EH Bilduk Herribusari buruzko ikerketa zertan den jakin nahi du eta horretarako galdera bat aurkeztu dio gobernu taldeari: "Idatzizko galderan, EH Bilduk gogorarazi du batzorde batean gobernu taldeak Herribusa martxan jarri aurretik azterketa bat egiteaz hitz egin zuela. Beraz, azterketa hori zein fasetan dagoen jakin nahi dugu". Horrez gain, Urazandiko autobus zerbitzuaren erabiltzaile kopuruari buruzko datuak eskatu dizkio ezker subiranistak udal gobernuari. Euren ustez, Urazandiko autobus zerbitzua asteburu osora zabaltzeko aukera aztertu beharko litzateke. Haien esanetan, asteburuetan ere zerbitzu hori egongo balitz, herritarrek erabili egingo lukete.

## Landa-bideei buruzko ordenantza berrikusteko eskatu dio baserritar talde batek Mendaroko Udalari, "modu desegokian" onartu zelakoan

A buztuaren 18az geroztik indarrean dago Mendaron landa-bideen erabilera berezia arautzeko ordenantza, eta ari da zeresana ematen. Aste honetan bertan, ordenantza berrikusteko eskatu dio Udalari baserritar talde batek (baserritarren %75 inguruk sinatu dute agiria), "modu desegokian" onartu zelakoan. Baserritarrek jaso dute ekainean batzar batera deitu zuela Udalak auzo bakoitzeko ordezkari bat eta batzar hartan bigarren bat egitekotan gelditu zirela baserritar guztiekin, baina bigarren hori ez zela egin eta tarte horretan, "opor giroa baliatuta", onartu zuela Udalak ordenantza berria, "baserritarren hitza entzun gabe". Ez daude konforme ordenantza onartzeko moduarekin, ezta ordenantzaz jasotako hainbat konturekin ere.

### Agiria sinatu dutenen arrazoiak

Ordenantzak dio beldar-ibilgailuek, katedunek, ibilgailu arrastatzaileek, 26 tona baino gehiagokoek, atoidun kamioiek eta trailerrek debekatuta dutela landa bideetan ibiltzea baimen berezirik ezean, lurraren zoladura eta arekak (kunetak) hondatzen direlako. Baserritarrek onartzen dute pinua ateratzean landa-bideek kalteak izan ditzaketela eta onartzen dute tasa bat ordaindu beharra ere horregatik, baina ez dute uste ordenantza berriak irtenbide onik planteatzen duenik. Udal ordenantzaren helburua basotik ateratako egurraren garraiorako egin behar diren bidai kopurua eta atera behar diren material tona handiak kontrolatzea izanda, baserritar talde honek ez du ulertzen Udalak atoidun kamioiak erabiltzea debekatu izana. Eta bi arrazoi eman dituzte: batetik, atoirik gabeko kamioiak garraio ahalmen txikiagoa duela, eta horregatik bidai gehiago egin behar dituzenez, gehiagotan zapaldu behar duela lurra. Eta bestetik, zenbat aldiz bidaiatzeaz gain, zenbateko pisuarekin bidaiatzen den ere ikusi behar dela uste dute ba-

serritarrek, zoladurari egiten zaion kaltea neurtzeko. Eta datuak eman dituzte. Kamioiak 16 tona inguruko pisu gordina izaten du eta 10 tona egur garraiatzeko aukera. Beraz, baimendutako kargarekin, guztira 26 tonako pisua izango luke hiru ardatzetan. Atoiak aldiz, lau tona pisatzen ditu, eta 10 tona egur garraia ditzake. Horri kamioiaren pisua batuta, 40 tona hartuko litzuke guztira atoidun kamioiak bost ardatzetan, eta bost ardatzok frenatzen dute. "Beraz, atoidun kamioiak bezainbeste egur jaitsi ahal izateko, kamioi soilarekin bidai kopuru bikoitza egin behar da, eta gainera, guztira, pisu handiagoz zanpatzen da lurra (%40koa da gain zama). Beste aldagai bat ere aipatu dute kontuan hartzeko: Ibilgailuaren ardatz kopurua, "ardatz kopuruaren arabera lurra gehiago edo gutxiago zanpatuko delako". Horren harira ohartarazi dute zanpatua txikiagoa dela atoa erabiltza, gurpilak ardatzetan banatzen direlako eta hein batean gurpilak direlako lurra zapaltzen dutenak. Atoidun kamioiei ezarritako debekuaren harira beste gogoeta bat ere egin dute: "Atoirik erabili ezin dutenez, arriskua dago egur zaleek kamioiak behar baino gehiago kargatzeko, bidai kopurua gutxitu ahal izateko. Nork zainduko du? Hartu al dute kontuan horrek sor dezakeen arriskua?" Eta gehitu dute: "Atoidun kamioia erabiltzea baimentzea eskatzen dugu, arekak kaltetzen ez diren lekuetan".

Tasak zehazteko irizpidearekin ere ez daude konforme. Kamioiak egin beharreko distantziaren eta mendi-sailaren hektareen arabera zehaztu dituzte tasak, eta agiria sinatu duten baserritarrek uste dute ordaindu beharreko tasa berdina izan beharko litzatekeela guztientzat. Hirugarren puntu bat ere jaso dute kontuan hartzea nahiko litzuketenen artean: Gaitzak jotako 30 urtez beherako pinudiak botatzeagatik tasarik ordaindu beharrik ez izatea.

## Anbulatorioko ordutegia zabaltea exijitzeko elkarlanean aritzeko proposamenari EAJk eta PSE-EEk ezetza eman izana "ulertezina" dela uste du EH Bilduk

Joan den astearen hasieran, Elgoibarko EH Bilduk iragarri zuen hainbat ekimen politiko abiaraziko zituela Osakidetzak ambulatorioko etengabeko arreta ordutegia berrezar zezan. Azaldu dutenez, batetik, eskaera horri erantzuteko eskatu dio Osasun Sailari, Eusko Legebiltzarrean, eta bestetik, Elgoibarko Udalean ordezkari bat duten alderdiei proposamen bat bidali zien, udalerrian akordio politiko bat lortzeko, ondoren Osakidetzako zuzendaritzaren aurrera "bat eginda" joateko eta erreklamazio bateratu bat aurkezteko. Orain, jakinarazi du Podemosek bakarrik eman diola baietza proposamen horri. "EAJk eta PSE-EEk ezezkoa erantzun diote EH Bilduk aurkeztutako proposamenari, Osasun Sailak herritarren beharrei erantzuteko ahal duen guztia egiten duela argudiatuta". Elgoibarko EH Bilduren ustez, EAJren eta PSE-EEren jarrera "ulertezina" da, "uko egiten diolako kalitatezko osasun-sistema publikoa izateko eskubidearen alde eta Elgoibarko herritarren bizi-kalitatearen alde elkarlanean aritzeko proposamenari".

## Salgaiak kalera aterako dituzte Txankakuako dendariak asteburuan

Sasoiz kanpoko salgaiak prezio merkeagoan eskainiko dituzte asteburuan Txankakuako 26 dendari hartuko dute parte, eta gaur eta bihar kalera aterako dituzte salgaiak, dendan atarira. Honako hauek hartuko dute parte: Aranburu Bitxidenda, Aauri Lurrindegia, Bizkor Bizikletak, Casa Astigarraga, Ecenarro Mertzeria, Ene Bada, Farmazabal, Federopticos Ikus, Ferpi jantzidenda, G&M jantzi-denda, Garate jantzi-denda, Goiara, Ipintza Margoak, Iria Moda, Iriondo Altzariak, Iriondo Kirolak, Karkizano, Lagunak Koltxoidenda, Lete, Moma jantzi-denda, Nalai Oinetakoak, Olaia Martinez Estetika Zentroa, Pitxintxu, Sara jantzi-denda, Uzuri Optika eta Txillarre Eko Denda.



10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da erosketak egiteko aukera, eta bi egun horietan erosketaren bat egiten duten bezeroen artean 300 euro zozkatuko dituzte, 100 euroko erosketa txeketan. Asteburuan ibilgailuentzat itxita egongo da erdigunea.

## Gizarte larrialdietarako dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak Gizarte Larrialdietarako 2021eko Laguntzak (GLL) eskatzeko epea zabaldu du, eta 2021eko azaroaren 26a bitartean egongo da aukera eskaerak egiteko. Laguntzak honako gastuei aurre egiteko erabiliko dira: Etxebizitza mantentzeko edo ohiko alojamenturako; etxebizitzaren alokairurako edo hipoteka kreditua ordaintzeko. Udalak 190.000 euroko aurrekontu partida erreserbatu du 2021eko kontuetan gizarte larrialdietarako dirulaguntzetarako, iaz baino 15.000 euro gehiago. Eskaerak Elgoibarko Arreta Zerbitzuan egin behar dira, eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariek azterketa indibiduala egingo dute.

## Martxoaren 24ra arte egongo da Errigoraren udaberriko kanpainako eskaerak egiteko epea

Atzo hasi zuen Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina, eta martxoaren 24ra arteko epea jarri dute eskaerak egiteko. Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserba-sortak, arroza eta pasta eskainiko dituzte, beti bezala, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan. Produktu ekologikoak eta ez ekologikoak erosteko aukera egongo da. Ekologikoen barruan, ondorengoak eskainiko dituzte: Pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, potxak, kardoak, menestra, garbantzuak, tomate frijitua, barazki krema eta pasta. Ez ekologikoen artean, berriz, hauek aukeratu daitezke: Pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, potxak, kardoak, borraja, zerba penkak, tomate frijitua eta arroza. Oliba bost litroko botiletan salduko dute, eta kontserbak 12ko poteetan. Informazio gehiagorako eta eskaerak egiteko [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) atarira jo behar da.

**MARTXOAK 4 - 24**  
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

# Plateretik baratzera

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)





# Aizkoltxo, Debabarreneko karsteko atea


**Goikola erreka sakanean dago Aizkoltxo muinoa, Mendaroko Plaza auzoan, 634 errepeidearen eta Deba ibaiaren artean. Kareharrizko tontorra da, Arnoko karstaren mugari naturala. Duela gutxi, lurpeko ur-sare bat topatu dute Leizarpe-Morkaiko espeleologia taldekoek inguru horretan. Gehiago ere bada, baina. Deba bailarako talaia izan zen antzinako gizakiarentzat, eta horregatik ere berezia da, ondare arkeologiko ugari bildu dituztelako muinoaren izen bereko kobazuloetako batean. Gaur, industriad inguratuta dago, eta arriskuan ikusten dute zenbaitzuek zubi berriaren obrek eta industrialdea handitzeko lanek are gehiago jan dezaketelako Aizkoltxo. Zubi berriaren aurreproiektuan kontuan hartzen dute Aizkoltxo kobazulo arkeologikoa babestu beharra, baina babes horri "txikiegia" irizten diote Leizarpekoek, kobazuloaz gain ingurunea babestea ezinbestekoa ikusten dutelako.**

- AINARA ARGOTIA -

**G**eologia da Euskal Kostaldeko Geoparkeko paisaiaren egiazko protagonista, Lurraren historia gordetzen duelako. Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen dute Geoparkea, eta lehen begiratuan itsasertzetik barrurantz dau den zelai eta basoak nabarmentzen badira ere, "leku honen interes benetakoa erraieran dago", barnealdean. Uraren higadurak moldatutako paisaia da, kareharrizko mendiz inguratuta, balio natural handikoa. Eta hor, Geoparkearen erraieran, kokatzen du Leiz-

zarpe-Morkaiko espeleologia taldeak Mendaro. "Azpilgoeta lehen bezala Mutriku balitz, Aizkoltxo babestuta egongo litzateke karstaren ibilbidea hemen hasten delako", dio Angel Maria Tobajas espeleologoak. "Etsita" dago, "Aizkoltxoren balioa aintzat hartzen ez delako".

Aizkoltxoren "maldizioa" 1927an hasi zela jaso dute Leizarpekoek. Garai hartan Jose Migel Barandiaran arkeologoak Aizkoltxoko aztarnategi arkeologikoaren berri eman zuen, baina



Goiko argazkian, Aizkoltxo muinoa. Behean, ezkerretara, Aizkoltxo aztarnategi arkeologikoaren ikuspegi ilustratua, eta eskuinean, Aizkoltxo 3 kobazuloarena. (Irudiak: Leizarpe-Morkaiko).

topatutako piezak "garrantzi gutxikoak" zirela zabaldu zuten, eta interesa galdu zuten Aizkoltxok. 2003an, EHUko arkeologo talde batek eta Azkoitiko Munibe Arkeologia Taldekoek indusketa sistematikoak hasi zituzten kobazulo hartan, indusketa klandestinoak izan zirela ikusi zutelako eta arriskuan ikusi zutelako aztarnategia bera. Baina sasoi beretsuan ekin zioten inguru horretan industrialdea eraikitzeari ere, eta "setiatuta" gelditu zen Aizkoltxo. 2003an, berriz, Mendaron bigarren zubi bat eraiki ahal izateko proiektua aurkeztu zuen Mendaroko Udalak. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra moldatu beharra zuten, baina, horretarako eta Ekolur Ingurumen Aholkularitza enpresari eskatu zioten ingurumen txostena egiteko. Txostenean, hein batean, onartu zuten Aizkoltxoren balioa eta erreferentzialtasuna, baina aldi berean ingurua "isolatua" eta "degradatua" zegoela nabarmendu zuten, eta horrek bere balioa apaltzen zuela. 18 urte igaro dira ordutik, baina joan zen astean, aurreproiektuaren berri eman zuten udal aldizkarian, eta batzuek onurak ikusi dituzten lekuan arriskua ikusi dute besteek.

Leizarpe-Morkaiko espeleologia taldekoek aspaldikoa dute kezka. *Bajo el suelo de Mendaro, por sus cuevas y simas* liburua argitaratu zuen Leizarpek 2018an eta han jaso zituzten Aizkoltxo babesteko arrazoi nagusietako batzuk, baina zerrenda handituz doa. Mendaron aurkitu duten bosgarren kobazulorik handiena Aizkoltxon dago [Aizkoltxo 3], eremu urbanoan, eta birjina da. Kobazuloan 300 bat metroan sartu dira barrura eta hareharritzko errekarri ugari topatu dituzte bertan. Hortik ondorioztatu dute Goi-kola erreka kobazuloan sartzen dela. Eta hain justu ere, kareharritzko errekarri berdinak topatu dituzte historiaurreko piezak agertu diren kobazuloan ere. Hogei bat metro gorago dago kobazulo hori, Deba ibaira begira, baina bietan errekarri berdinak topatu



*Aizkoltxo 3 kobazuloko beheko galeriak urez beteta.*

izanak erakusten du bi kobazuloak barrunbe bera direla; bi kobazuloak bat direla. Goiko kobazuloa "babestuta" dago, aztarna paleontologikoak aurkitu dituztelako bertan, baina behekoak, "kobazulo bera denak", ez dauka gaur inolako babesik. Are, oraindik ikertu gabe dagoen beste kobazulo bat ere badago muino berean, lantegi baten lurretan. "Gogoan daukat Ekainen erreplika Mutrikuko Astigarribia auzoan egitekoa zutela lehenengo, baina Jesus Altuna Aranzadiko orduko zuzendariak esan zuela erreplika bere ingurune naturalean eraiki behar zela, kobazuloa bezain garrantzitsua zelako ingurua. Irizpide bera aplikatu beharko genuke hemen, eta muino osoa babestu".



*Leizarpe-Morkaiko taldeko Angel Maria Tobajas eta Evaristo Rodriguez espeleologoak Aizkoltxo 3ko galeria handian.*

Hain justu ere, beheko kobazulo horretan, Aizkoltxo 3n, topatu dute berriki lurrazpiko beste ur sare bat leizarpekoek. Liburuan aurrreratu zuten kobazuloan ur markak atzeman zituztela Tobogan izeneko galeriako hormetan, hiru metroko altueran, baina pentsatzen zutela besterik gabe pilatuko zela ura hor noizbait. Baina, urtarilaren 16an, egun euritsu batzuen ostean, egiaztatu ahal izan zuten lurrazpiko uren arrastoak zirela haiek, barrura sartu zirenean urez beteta topatu zutelako beheko galeria. Orain garbi dute galeriak epifreatikoak direla; hau da, aldian-aldian urak hartzen dituela, lurpean urez betetako sifoiak daudelako eta euriteetan urak gora egiten duelako, Kilimoiko akuiferoan bezala. "Aizkoltxo kobazuloan ura egoteko kalkulatu dugu lurrazpiko urak zazpi bat metroan egiten duela gora egun euritsuetan. Izan ere, Deba ibaia 10 metrora dago eta leizean 16 bat metrora egoten da ura. Urak altuera hori hartzen duenean Ebro leizearen ahotik gainezka egi-

ten du errepidera", esan du Tobagasek, eta ohartarazi du Kurutz Gain industrialdera doan errepide hori metro bat beherago eraiki izan balute, Lili galdaragintza eta inguruko beste pabilioi batzuk urak hartuko lituzkeela halako egunetan.

40 urtean baino gehiagoan ari dira leizarpekoak lurrazpia esploratzen eta plan topografikoak eta hidrogeologikoak idazten. Mendaroko lurpeko errekek lokalizatu dituzte eta haien txostenei esker ezagutzen ditugu gaur Kilimon, Maala eta Tantorta iturburuak ere, gaur Debabarrenako lau herri hornitzeko ura ematen dutenak. Ibaiaren ezkeraldera, baina, Arnoko karstean, ez zuten gaur artean iturbururik topatu ibai ondoan. "Kolorazioak egin behariko ditugu orain iturburuak topatzeko eta ez da erraza izango, baina orain badakigu ur hori Aizkoltxoko lurpeko galerietatik pasatzen dela. Eta pentsa zer den ura, zer balio duen gaur urak eta zer balio izan dezakeen etorkizunean".

## Aizkoltxoren ezaugarriak eta balioa

Aizkoltxoren ezaugarriak zerrendatu dituzte leizarpekoek, eza-  
gutzen ez dena nekez baloratu ohi delakoan.

1. Debabarrenako karstaren atea da Aizkoltxo muinoa. Mendaro Geoparkean sartuta balego, kareharriaren erreferentziazko muga litzateke Aizkoltxo, Flyscharen ibilbidean Zumaiako K/T muga dena [Muga honek Mesozoikoaren bukaera eta Zenoziokoaren hasiera markatzen du].
2. Aizkoltxo muinoa aparteko elementua da Debabarrenako eta Mendaroko paisaje karstikoan. Deba bailararen erdian isolatuta dago, eta horrek oso berezia egiten du.
3. Aizkoltxon dago arte kantauriarraren lehenengo basoa. Karstaren interpretaziorako parkea eraikitzeko leku aproposa da, karsteko elementu geologiko nagusiak eta ohiko flora behatzeko leku egokia izango litzatekeelako.
4. Aizkoltxoko meandroa ekosistema karstiko apartekoa da, isolatua dagoelako. Hala ere, Deba ibaian barrena espezie asko sar daitezke bertara. Beste aldera, 634 errepide aldera, Goikola errekararen erretena dago. Goikola erreka errepide azpitik pasatzen da, eta korridore ekologiko bat da bere horretan, Goikola sakanarekin eta Arnoko Karstarekin lotzen duelako Aizkoltxo.
5. Debabarrenean karstaren lurrazaleko fauna guztia atzeman den lehen lekua da Aizkoltxo eta haren barrunbeetan dauden ehunka metrotako galerietan izugarria da lurrazpiko fauna.
6. Gotorlekua, babeslekua eta talaia izan zen antzinatean.
7. Aizkoltxo muinoan Debabarrenako aztarnategi arkeologiko nagusietako batzuk daude, bai gainazalean bai haitzulo barruan, Mendarori nazioartean ospea eman diotenak.
8. Aizkoltxo muinoa Debabarrenako lehen mailako elementu geomorfologikoa da, guztiz apartekoa, duela ehunka mila urte Goikolako sakana itxia eta itsua egiten zuelako. Horregatik, urek irteera bat bilatu zuten Aizkoltxo muinoko hustubide batetik eta haitzuloa zulatu zuten. Goikolako sakanetik datozen hareharritzko



*Evaristo Rodriguez, A.M. Tobajas eta Javier Vargas  
Leizarpe-Morkaiko taldeko hiru espeleologoak.*

kantoi edo errekarri ugariak eta haitzuloen barruan aurkitzen ditugunek hala erakusten dute.

9. Aizkoltxo haitzulo arkeologikoan eta aldameneko Aizkoltxo 3 haitzuloan agertutako hareharriek erakusten dute bi haitzuloak barrunbe beraren parte direla, eta beraz, Aizkoltxo 3k ere aztarnategi arkeologiko edo paleontologiko bat izateko aukera duela.

10. Aizkoltxo haitzuloen barruan, Mendaroko leizeetako betegari kuaternarioen kontzentrazioirik handiena dago, 8 metrotik gorako lodiera izan dezakeena

11. Aizkoltxo 3 haitzuloaren azpitik igarotzen da Mendaro udalerraren parean Deba ibaiaren ezkeraldean aurkitutako lurpeko uren sare bakarra, hau da, Arnoko Karstetik datorrena.

12. Aizkoltxo 3 haitzuloan, eurite-garaian, Debabarrenako barrunbeetan eta ibai ertzean orain arte ikusitako uholderik handienak gertatzen dira. Fenomeno bitxia da, Karst barruko barrunbeetan ohikoa dena, baina ez iturburuetatik gertu dauden barrunbeetan. Edonola ere, Aizkoltxo 3ko lurpeko uren igoera horiek uholdeak eragin ditzakete bere ahoaren azpitik geratzen diren industria-pabilioietan, hau da: Lili galdaragintza, Created Medical, Gorosabel elektrizitatea, Maser mikroelektronika, Iraola arrotzeria eta Intxusai jatetxea. Gainera, arrisku hori esponentzialki areagotuko litzateke Aizkoltxon aurreikusitako obra ugariak egingo balira, zalantzarik gabe kareharrien hausturak eta lurpeko uren ihesak eragingo dituztelako.



## Blanca Ochoa

EHUKO HISTORIAURREA  
ETA ARKEOLOGIA SAILEKOA

Geografia, Historiaurrea, eta Arkeologia Saileko ikertzailea da Blanca Ochoa Euskal Herriko Unibertsitatean. Joan zen azaroaren 11n, Mendaroko Aizkoltxo kobazuloan topatutako Goi-Madeleine aldiko lau zulodun makila baten berri eman zuen 'Complutum' zientzia aldizkarian, beste bost lagunekin batera. Era berean, aurreratu du luze gabe publikatuko dizkietela beste aurkikuntza batzuen inguruko artikulua.

- AINARA ARGOITIA -



## “Ziur gaude Aizkoltxon aztarna arkeologiko gehiago topatuko ditugula”

### ◆ Noiz, non eta nola topatu zenuten makila berezi hori?

Indusketa horiek 2003an hasi eta 2019a bitartean egin zituzten, eta makila, zehazki, 2014ko kanpainan topatu zuten. Josean Mujika EHUKo Historiaurreko Geologia eta Arkeologia irakaslea eta Azkoitiko Munibe Arkeologia Taldeko hiru arkeologok parte hartu zuten indusketa horietan, eta iaz, *Complutum* zientzia aldizkarian eman genuen aurkikuntza horren berri [Blanca Ochoaz gain, Daniel Ruiz Gonzalezek, Erik Arevalo Muñozek, Javier Alberdi Urdalletek, Juan Mari Arruabarrena Astiazaranek eta Jose Antonio Mujika Alustizak sinatu dute artikulua]. Txostenean diogun bezala, Aizkoltxo aspalditik da ezaguna. Hango Goi Paleolitiko aztarnategia L. Sierrak aurkitu zuen 1909an, eta 1927an aztarnategiaren berri eman zuen Jose Migel Barandiaranek. Pieza litiko batzuk ere bildu zituen, oso esanguratsuak izan ez zirenak. Geroago, laurogeiko hamarkadan, Munibe Arkeologia Taldeko kideek zenbait silex bildu zituzten eta Aranzadi Zientzia Elkarteari eman. Azkenik, 2003an, jarduera klandestinoen ebidentziak aurkitu zituzten koba barruan, eta horregatik erabaki zuten han indusketa sistematikoak hastea, zer edo zer errekuperatu ahalko zutelakoan. Bi eremutan jardun ziren lanean, zundaketa klandestinoak egin zituzten lekuan, eta kanpoaldean, sarrerako

ahotik 10 bat metro mendebaldera, bisera baten eta harpeko hormaren eta sabaiaren kolapsoetik zetorren bloke handi baten babesean. Hantxe topatu zuten irudiz apaindutako lau zulodun hagaxka edo makila. Bitxiena da hagaxka hori ez zegoela lur lauan, baizik eta arrakala baten barruan. Garbi ez dagoena da arrakalatik behera jausi ote zitzaizen garai hartako gizakiei, galdu egin ote zitzaizen edo nahita ezkutatu zuten han, beharbada ordurako ez zutelako erabiltzen.

### ◆ Zerk egiten du hain berezi hagaxka hori?

Makila orein adar zabal eta lodi baten gainean egina dago, eta pieza berari dagozkion bi zati berreskuratu dira. Orein adar horretan lau zulo egin zituzten eta grabatu batzuekin apaindu zuten. Pieza elegantea da oso, eta berezia, ikuspuntu arkeologotik. Tipo honetako erremintak nahikoa ohikoak dira berez Europa mendebaldean, 400 bat topatu dituztelako, baina gehienek zulo bat edo bi izaten dituzte gehienez. Hiru zulodunak ere topatu izan dira, baina hamarren bat bakarrik, eta honek lau ditu. Gainera, Aizkoltxoko hau topatu arteko guztiak Akitanian, Frantzian, topatutakoak dira, eta horrek ere egiten du apartekoa pieza hau. Goi Madeleine aldikoa da, duela 16.500-13.300 urtekoa [Mendebaldeko Europako Goi Paleolitiko amaierako kultura arkeolo-

gikoa]. Pieza bera oso apaindua dago eta gutxi dira halakoak orain arte topatutakoen artean.

#### ◆ Zer ikus daiteke apaindura horietan?

Irudi figuratiboak eta ez figuratiboak ditu. Orein baten burua antzeman daiteke, eta interpretatu gabe ditugun beste animalia batzuk ere ageri dira, ekidoen edo leporidoen familiakoak izan daitezkeenak; alegia, zaldia, astoa edo unxiaren familiakoak. Lehenengo begiratuan, zaldi bat dela ematen du haietako batek, etzanda ageri den moxal bat-edo. Baina belarri luzetxoak eta lepo sendo eta mozkotea ditu zaldia izateko eta horregatik astoa dela pentsarazteko arrazoiak ere badaude. Baina aldi berean, buru biribildu horrek, gorpuzkera konpaktu horrek, eta batez ere atzeko hankaren kurbaturak leporido bat izan daitekeela pentsatzeko bidea ematen du, unxi bat edo erbi bat. Dena den, arte paleolitikoan ez dira batere ohikoak leporidoak. Orein adar bi ere grabatu zituzten hagaxkan, eta orein buru bat ere bai, parez pare begiratuta. Egia da ez dela oso ohikoa garai hartan oreinak aurrez aurre marraztea. Zaldiak eta bai, ohikoak dira, baina oreinak, ez. Horrez gain, bestelako zeinu batzuk ere ageri dira apaindura gisa. Askotarikoak dira: badaude marra zuzenak, marra paraleloen multzoak... nahiko ohikoak dira horiek Madeleine garaiako objektuetan. Hori bai, Kantauri alde honetan ez dira batere ohikoak hiru bat animalia espezieren trazatuak eta bestelako zeinuk dituzten piezak.

#### ◆ Zertarako erabiltzen zituzten hagaxka hauek?

Ba egia esan, ez dakigu. Asko idatzi da horren inguruan, eta 40 balizko erabilera baino gehiago eman izan zaizkie halakoei, baina ziurtasunez ezin genezake ezer esan. Guk, gure artikuluan, hainbat erabilera posible aipatu ditugu. Esan izan da aginte makilatza erabili zituztela eta erritu berezietan erabiltzeko ere egin izan zituztela, baina gaur egun uste dugu erabilera funtzionala ere izan zutela. Hipotesi nagusietako batek dio azagaien zuzentzaile gisa erabili zituztela halakoak. Arma jaurtigarri primitiboak ziren azagaiak, eskuarekin edo bultzagailu baten laguntzaz jaurtitzen zituztenak. Baina beste erabilera batzuk ere proposatzen dira: kableen tenkagailuak, arma-euskarriak, saskigintza edo landare-zuntzez egindako sokak fabrikatzeko tresnak, armak eta funtzio sinbolikoak... Ez dugu bazterten pieza hori gauza baterako baino gehiagorako erabili izana ere.

#### ◆ Aipatu duzu orain arte aurkitu dituzten hiru zulo edo gehiagoko hagaxka guztiak Akitanian aurkitu dituztela. Zer esan nahi du beraz Aizkoltxon topatu izanak?

Indikatzaile horrek eta beste zenbait indikatzailek erakusten digute mugikortasun handia zu-

## “Aparteko pieza da Aizkoltxon topatu duguna. Goi Madeleinekoa da, duela 16.500-13.300 urtekoa”

tela garai hartako gizakiek eta Kantauri eta Bizkaiko Golkoko, Mendebaldeko Pirinioetako eta Erdialdeko Pirinioetako aztarnategien arteko lotura estua berresten du. Hau da, objektu honek erakusten

digu informazioa eta objektuak partekatzen zituztela hango eta hemengoek; harremantzen zirela euren artean. Hori oso garrantzitsua da garaiako gizarte antolamenduz gehiago jakiteko, bai eta nondik nora ibiltzen ziren eta mugak non zituzten jakiteko ere.

#### ◆ Zer espero duzue topatzea Aizkoltxon?

Badauzkagu publikatu zain dauden aurkikuntza gehiago ere. Publikatzeko prozesua motela da, baina gauza interesgarriak datozela aurreratu diezazuket. Ikertutako eremua ere ez da horren handia. Asko dago oraindik industeko eta ikertzeko eta ziur naiz Aizkoltxon emango dituela berri gehiago etorkizunean.

#### ◆ Jakingo duzu ziuurrenik Leizarpe-Morkaiko Espeleologia Taldekoek lurrazpiko ur sarea ere topatu dutela indusketak egin diren lekutik oso gertu dagoen beste kobazulo batean, Aizkoltxo 3n. Eta jakingo duzu, baita ere, zubi berri bat eraikitzeko proiektua ere badagoela Aizkoltxon. Kezkatzen zaitu horrek?

Bai, jakina. Ez nuen Leizarpekoek egindako aurkikuntzaren berri, baina bai zubi berriaren proiektu horren berri, eta bai, jakina, kezkatzen gaitu. Foru Aldunditik deitu digute zubi berriaren proiektuaren berri emateko eta elkarlanean jardun nahiko genuke haiekin, ahal den gehien babesteko inguru hori, esan dizudan horregatik: oso eremu txikian jardun gara lanean, eta ziur gaude hor azterna arkeologiko gehiago topatuko ditugula. Oso garrantzitsua da Aizkoltxoko inguru hori babestea, lan handia dagoelako hor egiteko. Aizkoltxo oso kobazulo interesgarria da, historiaurreko garai ezberdinetako objektuak agertu direlako.



Javier Alberdi, Miel Sasieta, Juan Mari Arruabarrena eta Jose Antonio Mujika sedimenduak bahetzen Aizkoltxo kobazulo arkeologikoan. (Arg.: J.A. Mujika)

# M8: Pausoak berdintasunerantz

Emakumeen Nazioarteko Eguna da martxoaren 8a, eta berdintasunerako pausoak emateko asmoz, aurten ere, hainbat ekimen antolatu dituzte gizarte eragileek eta instituzioek egun horren harira. Elgoibarko Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, hilabete osoko egitaraua antolatu du, eta Mendaron asteburu honetan izango dira ekitaldiak, Tratu Onen Aldeko Taldeak Udalaren babesarekin antolatuta. Aurten, pandemia betean, modu edo formatu desberdinean egingo dituzte ekitaldiak. Ekitaldi gehienak aretoetan egingo dituzte, edukiera mugatuarekin. Hala ere, Uluka Batuka feministakoek kalera irtengo direla jakinarazi dute, une honetan ere kalera irtetea beharrezkotzat jotzen dutelako. Herritarrei eskatu diete, baina, ez batzeko beraien bueltara, eta babesa balkoietatik erakusteko.

- AINHOA ANDONEGI -



## ► MAIER IRIGOIEN ETA IKER OIZ

ZAURIA(K)' DOKUMENTALAREN SORTZAILEAK



Martxoaren 8ko egitarauaren barruan 'Zauria(k)' dokumentala ikusteko aukera izan genuen atzo, Elgoibarren. Eromena, gaizkiegona eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik lantzen duen dokumentala da, narratiba, ilustrazioa eta poesia bezalako adierazpen artistikoen bitartez. Maier Irigoien eta Iker Oiz dira dokumentalaren sortzaileetako bi, eta haiek eman dituzte proiektuaren azalpenak. Nahi duenak Internetez ikusteko aukera dauka Filmin plataformaren bitartez: [www.filmin.es/pelicula/zauriak](http://www.filmin.es/pelicula/zauriak).

# “Beharrezkoa da gauza bat izendatzea existitzeko eta gizartean lekua izan dezan”

♦ **Bi urte pasatu dira 'Zauria(k)' dokumentala sortu zenutenetik. Zerk bultzatu zintuzten dokumental hori egitera?**

Bai, bi urte pasatu dira aurkezpena egin genuenetik, eta hiruzpalau urte dokumentala sortzearen ideia jaio zenetik. Diskurtso eta material feministetan ondoeza eta buruko osasun hegemonikoaren inguruan aurkitutako hausnarketa gabeziarengatik sortu zen proiektua. Bi diskurtso hauen artikulazioaren edo saretzearen beharraz. Gu mugimendu herrikoi eta feministetatik gatoz eta behin baino gehiagotan eztabaidatu dugu gure egunerokoan dokumentalean lantzen diren gaien inguruan eta jabetu gara apenas

hausnartu dela horren inguruan. Ez genuen buruko osasunaren inguruko ikus-entzunezko materialik topatu ikuspegi feminista zuenik eta horregatik hasi genuen proiektua. Gerora konturatu gara beste arrazoi ezkutuetako bat gure zaurgarritasun propioa ulertzea zela.

♦ **Maier Irigoien, Isabel Saez eta Iker Oiz zarete sortzaileak. Zein da zuen lan esparrua? Nola batu zineten dokumental hau sortzeko? Nondik sortu zen ideia eta zein helbururekin?**

Hirurak lagunak gara. Iker eta Isa ikus-entzunezko esparruan aritzen dira, eta Maier, berriz, buruko osasunaren inguruko mugimendu kritikoetan zein mugimendu

mendu feministan. Gure artean behin baino gehiagotan agertutako gaia izan da, eta kafe baten bueltako elkarrizketa informala ordu eta erdiko dokumental batean gorpuztu genuen. *Zauria(k)* bozgorailu lana egiten duen proiektu bat da, ondoezak eta bere bizitzan zehar diagnostikoren bat pairatu izan duten emakumeen\* ahotsa eta errealitateak ikustarazteko aukera bat; hori da arrazoi nagusia: ondoeza, eromena eta buruko osasunaren inguruko iruditegia eraldatzeko beharra. Beste helburuen artean osasun eredu hegemoniko eta psikiatrizazio praktiken inguruko hausnarketa zabaltzea eta osasun eta genero

## “Ez da feminismo bakarria existitzen, horregatik feminismoetaz hitz egiten dugu”

eraikuntza zein modutan erlazionatzen den ikustaraztea izan da.

♦ **Genero ikuspegia emakume eta gizon identitateetik harago landu duzue dokumentalean. Eromena, gorputza eta feminismoa. 9 emakumeren\* testigantzak jaso dituzue dokumentalean. Zein motako testigantzak izan dira? Zer erakusten dute testigantza horiek?**

Dokumentalean zehar gai asko aipatzen dira: eromena, gaixotasuna, medikalizazioa, heteroaraua, diagnostikoa, isiltasuna, bazterrak, kolektibitatea, zaurgarritasuna... Guzti hau sei kapitulotan dago banatua: eromena, psikiatrizazioa, genero bizipenak, alternatibak, zaurgarritasuna eta epilogoak. Bederatzi emakumetatik\* zazpi izan dute diagnostikoren bat euren bizitzan zehar; batek, Itsasok, eromena ikuspegi antropologiko batetik azaltzen du, eta, Nagorek osasunaren inguruko irakurketa feminista bat egiten du. Testigantzak ezberdinak dira, eta haien artean psikopatologizazioaren errealitate anitzak islatu nahi izan ditugu. Bakoitzak bere istorio pertsonalak konpartitzen ditu, baina amankomuneko bizipenak ere erakusten dituzte: estigma, isiltasuna edo kanpo begirada esaterako.

♦ **Desberdina al da gizartearentzat emakume ala gizona izatea buruko gaitza duena? Zer lotura dago ondoez psikosozialen eta genero eraikuntzaren artean?**

Genero eraikuntzak gure eguneroko praktikak, gure iruditegiak, gure usteak eta gure identitateak gurutzatzen ditu. Generoa transbertsala da, arraza, klasea, kultura, aukera sexuala eta beste hainbat zapalkuntza ardatz bezala. Ezinezkoa da gure ondoezak eta gure osasuna ulertzea generoak duen papera aztertu gabe. Generoaren eraikuntza eta psiko-patologizazio prozesuak guztiz erlazionatuak daude. Generoak ongi klasifikatzen du, norberari egokitutako generoaren barnean zer den egokia eta zer den okerra. Guztiz arautua dagoen giza eraikuntza bat da, eta arautze horretatik ateraz gero, zigorra eta patologizazioa agertzen dira, Itxaso Martin Zapirainek dokumentalean

dioen moduan. Hau argi ikusten da, bai feminitate eta bai maskulinitate hegemonikoen eraikuntzan: heteroarautik kanpo gelditzen diren gorputz, praktika eta harremanak patologizatu egiten dira, eta horrek, noski, ondoeza dakar.

♦ **‘Izendatzen ez dena ez da ikusten, eta ikusten ez dena ez da existitzen’. Hala diozue dokumentalean. Zer esan nahi duzue esaldi horrekin?**

Gauzak izendatzearen garrantzia dago *Zauria(k)* dokumentalaren erdigunea. Beharrezkoa da gauza bat izendatzea, existitu eta gizartean leku bat izateko. Askotan zaila da izendatzea bera eta askotan ez dira hitz nahiko existitzen zure ondoeza izendatzeko. Hitz eta modu asko ditugu sortzeko oraindik.

♦ **Buruko gaitzak ezkutuko gaitzak dira, gai tabua. Horiek ikusarazteko ahalegina da ‘Zauria(k)’?**

Bai, edo behintzat horren saiakera izan da. Dokumental honen hausnarketarako guneak sortu izan dira, eta proiektzioetan eman diren solasaldietan iritzi, bizipen eta eztabaida ezberdinak sortu

dira. Hori zen gure helburua: guzti honez hitz egitea. Eromena eta zaurgarritasuna uste baino gertuagotik bizi ditugula konturatzea nahi genuen.

♦ **Zer esan nahi du parentesi arteko ‘k’ horrek?**

Zauriaren kontzeptua oso kontzeptu arrunta da, edonork antzeman edo identifikatu dezake zauri bat bere gorputzean, bai fisikoki eta baita emozionalki ere. Eta zauria hitza edonork izan dezakeen zerbait da. Modu honetan “persona gaixo edo ero” eta “persona osasuntsuaren” arteko distantziak gerturatu eta haiek / guk logika dikotomikoa apurtzen duen hitza litzateke. Persona orok izan dezakeelako zauri bat eta izan daitekeelako zaurgarri. “K” hizkia nabarmentzearekin, aniztasunari balioa eman nahi genion. Ez da feminismo bakarria existitzen, horregatik feminismoetaz hitz egiten dugu. Ez da zauri bakarria existitzen, horregatik da zauria(k).

♦ **Bi urteren ondoren, nolako esperientzia izan da? Zelako harrera izan du dokumentalak? Zuen helburua bete dela esango zenukete?**

2019ko otsailean aurkeztu genuen lehenengo aldiz eta oraindik aurkezpenak egiten gabilta. Izugarrizko harrera izan du, guk espero genuena baino askoz handiagoa. Honek argi erakusten du gure jendarteak osasun mentalaren inguruan hitz egiteko duen beharra.





## ▶ ION MARTINEZ AKTOREA

Nagore Laffageren eta La Manadaren kasuetan oinarritutako euskarazko fikzioa da 'Birritan bortxatua' antzezlanak, Aldatzen Laguntzen taldeak sortua, eta emakume bortxatuek epaiketetan jasaten duten biktimizazio bikoitza salatu eta kritikatzeko du. Bihar ikusi ahal izango da antzerkia, Mendaroko San Agustin kulturgunean, 19:00etatik aurrera. Ion Martinez (Donostia, 1980) obrako aktore eta gidolariak eman digu antzezlaren berri.

“Ez dugu desatseginak izan nahi, baina errealitatea gordina da eta hala erakutsi nahi izan dugu”

### ◆ Zerk bultzatu zintuzten 'Birritan bortxatua' obra sortzera?

Gure antzerki taldearen laugarren obra da hau. Iaz hamar urte bete genituen, eta nahi genuen umoretik harago zerbaite egitea. Antzerki estilo desberdinek lantzea gustatzen zaigu, eta oraingoan drama bat kontatu nahi genuen. Indarkeria matxista eta emakumeen borroka pil-pilean dago azken urteetan, eta guk ere gure alea jarri nahi genuen gai horretan. Aurrez eginiko obretan umorea landu dugu batez ere, eta obra honekin serio jarri gara.

### ◆ Aktoreetako bat izateaz gain, zuek idatzi duzu gidoia.

Bai. Nagore Laffage eta La Manadaren epaiketetatik informazio asko atera dut, eta bi kasu horietan oinarritu naiz bereziki gidoia idazteko. Obraren kontaketa duguna da herriko jaietan bortxatu duten emakume bat nola ausartzen den epaitegietara joaten. Epaitegian bizitzen den prozesua islatu nahi izan dugu, prozesu hori bortxaketa bera bezain gogorra edo gogorragoa izaten delako askotan. Egoera hori salatu nahi izan dugu, hau da, emakumea biktimizatzen hartu beharrean

beti zalantzan jartzen dutela. Epaiketateko erantzunak eman behar ditu beti modu matematikoan, zehatz, inolako zalantza izpirik gabe, epaileak beti dena dudan jartzen duelako, eta askotan epaitegia bortxatzailea izan beharrean emakumea bera izaten delako. Epaiketa bera kontatzeaz gain, emakumeak bortxatu zuten gaur, epaiketean edota kaletik doanean bizi dituenak ere kontatzen ditugu.

### ◆ Hortik dator, beraz, antzezlaren izena?

Bai, hori da. Epaiketa bigarren bortxaketa modukoa izaten da emakumearen



tzat eta hori adierazten du izenburuak. Zailtzak izan genituen obrari izena jartzekoan, baina uste dut asmatu genuela.

♦ **Protagonistak Nagore du izena. Nagore Laffageren omenez jarri diozue izen hori?**

Bai. Nagore Laffagerena gertatu zenean uste dut Euskal Herrian eragin handia eragin zuela. Denok jarraitu genuen prozesua, gero dokumentala egin zuten eta Nagoreren amak hitzaldi asko eman ditu. Esango nuke euskal gizartearentzako erreferente bilakatu dela Nagore Laffage. Gero La Manadarena etorri zen, Iruñean berriro ere, sanferminetan, eta horrek berriro ere Nagore Laffage ekarri zigun gogora. Aski da esateko ordua iritsi zen, eta bi kasu horiek hartu genituen oinarrian. Fikzio dokumentala da gure obra, nolabait esateko. Fikziozko istorioa da, baina gidoiko informazio gehiena benetako epaiketetatik hartutakoa da. Pentsa daiteke fiskalak eta abokatuak egiten dituzten galdera batzuk asmatutakoak direla, baina denak dira benetakoak, eta hori azaltzen dugu obraren bukaeran. Gehienak La Manadaren epaiketako galderak dira, euskaratuta eta apur bat gure istoriora moldatuta, baina errealak dira guztiak.

♦ **Ikuslearengan zer bilatu duzue obra honekin?**

Antzerkigile bezala beti bilatzen dugu ikuslearen sentimenduetan zerbait mugitzea, inpaktua sortzea. Umorea egiten dugunean ere bai, hau da, txistek kontaktzen ditugunean ikuslearen barruan nolabait alaitasuna piztea nahi izaten dugu, eta drama honekin kontrako sentimendua piztea nahi izan dugu. Edonori gerta dakioken istorioa dela ikusarazi nahi izan dugu, eta erakutsi nahi izan dugu zein salduta geratzen den bortxatua izan den emakumea epaitegietan. Eta hori hemen badaudela babesa eskaintzen duten elkarteak, baina beste leku batzuetan emakumeak ofiziozko abokatu batekin joaten dira epaiketara, oso baldintza gogorretan.

♦ **Umorea egitetik zatozte. Aktore bezala, nola prestatu zarete paper dramatikoa hau antzezteko?**

## *“Fikzioa da gure obra, baina gidoiko informazio gehiena benetako epaiketetatik hartutakoa da”*

Ni oso umore zalea naiz, eta umorezko bakarriketarako ere egiten ditut, baina aktore bezala gustatzen zaizkit erronkak. Nirekin antzerkia egin duenari gustatzen zaizkio estilo honetako lanak, eta obra sortu nuenean berarekin pentsatuz egin nuen, banekielako bere erremintak oso onak zirela obra hau antzezteko. Hilabete asko eman ditugu entseatzeko, eta bizi dugun egoera honetan zailtasun asko gainditu behar izan ditugu, baina uste dut emaitza ona lortu dugula. Azken batean lortu dugu ikusleak sinistea emakume hori bizitzen ari dena benetan gertatu dela, eta hori aktore batentzat oparirik onena da. Ikuslea istorioan sartzen da, sentimenduak gora eta behera dabiltza uneoro eta istorioa sinistea izugarria da.


♦ **Eszenatokia boxeoko ring estilora atondu duzue. Zer dela eta?**

Gure asmoa 360 gradutan antzeztekoa da, hau da ikusleak eszenatokiaren lau aldeetan kokatzea, baina koronabirusaren ondorioz antzoki askotan ezin izan dugu hori egin. Gu saiatzen gara horrela egiten, horrek laguntzen duelako

ikuslea gehiago sartzen istorioan. Bi lagun bakarrik gara konpainian eta dena dena geuk egiten dugu. Foko gutxi batzuekin atondu dugu eszenatokia, eta Nagore erdian kokatzen da, boxeoko ring batean edo hiltegi batean balego moduan. Argiekin jolastuz eta off ahotsa eta soinu bereziak sartuta lortzen ditugu giro desberdinak. Ikuslea lehenengo momentutik sartzen da istorioan. Ez dugu desatseginak izan nahi, baina errealitatea gordina da, eta hala erakutsi nahi izan dugu.

♦ **Nolako harrera izan du obrak?**

Obra sortu genuenean erabaki genuen drama potente bat egitea. Normalean antzerki zirkuitoan komedia hobeto saltzen da, baina guk honen aldeko apustua egin genuen. Jende askori komedia ikustea gustatzen zaio, baina nik uste dut badagoela ikuslearen artean drama ikusi nahi duen jendea ere. Jendeari gustatzen zaio horrelako gaietara buruz hausnartzea, eta obra honek horretarako aukera ematen du. Iazko otsailean estreinatua genuen obra eta dagoeneko 25 emanaldi egin ditugu. Oso pozik gaude, eta esango nuke egin ditugun lau antzezlanetatik honek erakarri dituela ikusle gehien. Pandemiak gogor jo du gure sektorean, eta ikusi beharko dugu aurtengo urtea nola doan. Momentuz, asteburu honetan Mendaron eta Elgetan izango gara, baina apiriletik aurrera oraindik ez daukagu ezer lotuta.





Martxoak 6, zapatua. 12:30ean. Herriko Antzokian.  
Gonbidapenak, Pitxintxun.

## SUSTRAI AKORDEOI TALDEA

Martxoak 14, domeka. 16:30ean. Herriko Antzokian.

## ANTZERKIA: 'MERI, MARI ETA LARI'



Meri haurdun dago, eta laster jaioko da umea. Aspaldi ikusi gabeko Mari lagunarekin egingo du topo, eta kontu kontari hasiko dira. Marik ez zekien Meri haurdun zegoenik, eta ezusteko ederra jasoko du. Halako batean, betiko galdera botako dio: Neska ala mutila izango da?. Identitatearen inguruko hausnar-keta du oinarri antzezlanak. Hau da, ez al du norberak aukeratzen zer izan nahi duen?



Martxoak 12, barikua.  
19:00etan.  
Herriko Antzokian.

## ANTZERKIA: 'ELISA Y MARCELA'

A Panadería konpainia galziarraren eskutik iritsiko da *Elisa y Marcela* antzez-lana Elgoibarrera. Espainian ezagutzen den bi emakumeren arteko ezkontza du oinarrian obrak. 1901ean ezkondu ziren Elisa eta Marcela Coruñan, bietako bat gizonezko jantzita. Identitate al-daketa, jazarpen poliziala ihesaldiak eta manipulazioa lantzen ditu antzezlanak.

Martxoaren 16tik 30era. 18:30etatik 20:30era.  
Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## ARGAZKI ERAKUSKETA: VENEZIAKO ESENTZIA. Esmeralda Zapparoli

Haizea emakume taldeak eta Udaleko Berdintasun Sailak antolatu dute erakusketa. Venezia oso hiri ezaguna da, urtero turista asko hartzen dituen. Kanala, elizak, eraikin historikoak edota kaleak argazkitan biltzen ditu jendeak, baina Esmeralda Zapparolik beste Venezia bat irudikatuko du. 20 bat argazki jarriko ditu ikusgai, Veneziaren alde ezkutua argitarara ateratzeko. Zapparoliren familia Veneziatik gertu bizi da, eta umetatik ezagutzen duen hiria da. Zortzi bat urtetan zehar ateratako argazkiak erakutsiko ditu.



Martxoak 17, eguaztena.  
19:00etan. Herriko Antzokian.

## ZINEA: 'VOLVER A EMPEZAR'

Phyllida Lloyd-ek zuzendutako film irlandarra da. Sandra ama ezkongabea da. Egun batean bere senarra laga eta etxebizitza sektorearen kontra borrokatzea erabaki zuen. Bere etxea eraiki nahi du, bere bi alabekin goxo bizitzeko gunea. Prozesu horretan lagunduko dioten hainbat lagun agertuko dira filmean, eta etxea eraikitzeaz gain, bere burua eza-gutu eta bizimodu berria berreraikiko du Sandrak.



Martxoak 22, astelehena. 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



## EMAKUMEEN HAUSNARKETARAKO SAIOA: ZAINZA BERDINTASUNEAN

Zaintzaren gaia genero ikuspegitik lantzeko saioa izango da. Zaintza emakumeei lotuta agertzen da, eta gai horren inguruan hausnartuko dute. Zaintzaren nondik norakoak azaltzeaz gain, emakumeek historikoki bete duten zaintzaile papera ere aztertuko dute.

Martxoak 26, barikua.  
19:00etan.  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## ZINE FORUMA: LAS BOSTONIANAS

Henry James idazlearen liburuan oinarritutako filma da, 1984koa. Boston hiriko emakume burges ilustratu talde bat da protagonista. Sufragioaren alde borrokatuko dute, emakumearen askatasunerako bidean. Bostoneko Mugimendu feministaren has-tapenak ditu oinarri. Basil bere lehengusina Olive bisitatzera joango da Bostonera eta gizonezko eta emakumezkoen arteko eztabaida sortuko da bien artean.



Martxoak 6, zapatua.  
19:00etan.  
Mendaroko San Agustin aretoan.

## ANTZERKIA: 'BIRRIAN BORTXATUA'

Bortxaketa bat pairatu duen emakumea da Nagore, antzezlaneko protagonista. Nagorek erasoari eta haren ondorio zailei nola aurre egiten dion jasotzen dute obran eta epaiketa bera nola bizi duen ere erakusten dute.



Martxoak 7, domeka.  
Egun osoan. Mendaroko Frontoian.

## ERAKUSKETA: 'EMAKUMEA NAIZ ETA HARRO NAGO'

Guztionez ikusgai egongo da erakusketa herriko neska eta emakumeen irudi eta esaldiekin.

Martxoak 7, domeka.  
12:30ean  
Mendaroko San Agustin aretoan.

## KONTZERTUA SAIOA LIZARRALDE ETA MADDALÉN ARZALLUS



Martxoak 10, eguaztena.  
19:00etan.  
Mendaroko Udaletxeko Udaltzako aretoan.

## HITZALDIA: 'EMAKUMEAK ETA MIGRAZIOA'

Hizlariak:

- Andrea Ruiz Balzola. Antropologian doktorea. Aniztasuna eta migrazio gaietan aditua eta aholkularia.
- Maya Amrane: Kultura aniztasunaren kudeaketan espezialista eta Munduko Emakumeak Babel taldeko kidea.

**Baietziaren egon:**  
*Baietz uste izan. —Realak ez du aurten ligia irabaziko. —  
 Ni baietziaren nago, ba! ikus Ezetziaren egon.*

## Julen Zabaletari esker ona erakutsi dio Udalak ehun urteko ibilbideagatik



Elgoibar herriaren 675. urteurreneko ekintzen barruan *Yulen 100 urte* erakusketa antolatu du Udalak, hain zuzen ere, marrazkilariak 100 urte egin dituelako aurten. Koronabirusaren ondorioz, atzeratu egin behar izan zuten inaugurazioa, eta joan zen barikuan zabaldu zuten. Julen Zabaleta bera ere han izan zen, eta Udalak omenaldi xume bat egin zion, ehun urteko marrazkilari ibilbidea goraiatuz. Zabaletak hunkituta eta oso pozik jaso zuen Udalaren oparia, eta 100 urteko ibilbidearen sekretua konstantzia zela nabamendu zuen.

## Hilaren 12ra arte dago idazlan lehiaketan parte hartzeko aukera

Ikasleen artean euskaraz idazteko gaitasuna sustatzeko asmoz, idazlan lehiaketa antolatu du Udalak laugarren urtez, eta gaur zortzi amaituko da parte hartzeko epea. Elgoibarko ikastetxeetan ikasten dabilen 8-18 urte bitarteko ikasleentzako edota, Elgoibarren erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabilen adin berekoentzako lehiaketa da. Gaia libre izango da, baina euskaraz idatzitakoa, jatorrizkoa, aurrez saritu gabea eta argitaratu gabea izan behar da lana. Parte-hartzaileek ikasgeletan aurkeztu behar dituzte idazlanak (3 kopia), eta Elgoibartik kanpoko Ikastetxeetan ikasten ari direnek, berriz, zuzenean entregatu beharko dituzte lanak HAZen (Santa Ana kalea, 2). Sari moduan, 50€ eta 120€ bitarteko 26 bono banatuko dituzte.

## Elgoibar Ikastolako ikasleak Zuk Zeuk lehiaketaren aurreneko postuetan dira

Feel My Way Kooperatibak eta Euskal Herriko 12 eragilek elkarlanean antolatu dute Zuk Zeuk lehiaketaren hirugarren edizioa, eta aurtengoan, 30 ikastetxetako 900 ikasle ari dira parte hartzen. Elgoibarren kasuan, Elgoibar Ikastolako DBH 3 eta DBH 4 mailetako lau talde ari dira parte hartzen. Indartsu hasi ziren talde elgoibartarrak, eta astero-astero eutsi diete aurreneko postuei. Martxoaren 12an jakingo da zein talde sailkatuko diren finalerako, eta Elgoibarko taldeek aukera handia dute 10 onenen artean egoteko.



## Gaur zabaldu dute udaberriko oporraldian izena emateko epea, eta martxoaren 14ra arte egongo da zabalik



**A**txutxiamaiak eta Ludotekak elkarlanean antolatu dute udaberriko oporraldirako egitaraua, eta gaur hasita, hilaren 14ra arte egongo da egitarauko ekintzetan izena emateko epea. Martxoaren 29tik 31ra eta apirilaren 6tik 9ra arteko egunetarako antolatu dituzte ekintzak. Banaka, binaka, hirunaka edota familian egiteko moduko ekintzak prestatu dituzte. Izena emateko Elgoibarko Izarraren bulegora edo Ludotekara jo behar da, eta nahi duenak, Internetez ere egin dezake, [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean. Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek deskontuak izango dituzte, eta horrez gain, Udalak dirulaguntzak emango ditu. Dirulaguntzei buruzko informazioa jasotzeko: 943 741 050 / [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus).

### EGITARAUA

- Herriko sekretuak, orientazio froga familian. Martxoak 31 / 10:30-13:30. 6 euro. Bazkideek 5 euro.

#### LH1-LH3

- Mendi irteera, Hezur Museoarekin elkarlanean. Martxoak 29 / 10:30-16:30. 12 euro. Bazkideek 11 euro.
- Zientziarekin jolasean. Apirilak 6 / 10:30-13:30. 6 euro. Bazkideek 5 euro.
- Haurren herria, talde jolasa. Apirilak 8 / 10:30-16:30. 12 euro. Bazkideek 11 euro.

#### LH4-LH6

- Mendi irteera. Martxoak 30 / 10:30-16:30. 12 euro. Bazkideek 11 euro.
- Zientziarekin jolasean. Apirilak 7 / 10:30-13:30. 6 euro. Bazkideek 5 euro.
- Haurren herria, argazki rally-a. Apirilak 9 / 10:30-16:30. 12 euro. Bazkideek 11 euro.

## 333 ikaslek hartu dute parte Mendaroko XXVI. euskarazko ipuin lehiaketan

Mendaro, Elgoibar eta Debako ikastetxeetako 333 ikaslek parte hartu dute Mendaroko euskarazko ipuin lehiaketan. Hiru mailatan antolatu dute lehiaketa: A mailan (LH1-LH4) ipuin batetik abiatuta marrazki bat egin behar izan dute ikasleek, eta 74 ikaslek hartu dute parte. B mailan (LH5, LH6, DBH1, DBH2) berriz, alderantzizko lana egin behar izan dute: ilustrazio batetik ipuin bat sortu, eta 259 ikaslek parte hartu dute. C mailan (DBH3 - DBH4) ez du inork parte hartu.

Lehiaketan parte hartu duten guztiek koadernotxo bana jaso dute oparizat, baina saridunak sei izan dira. A mailan, Izadi Etxarte (L2) eta Ainara Txurruga (LH4). B mailan, berriz, lau irabazle izan dira: Yuren Huertos (LH5), Jule Goikoetxea (LH6), Paule Soto (DBH1) eta Duna Garate (DBH2). Sari horiez, gain, baina sei liburu elektroniko ere zozkatu ditu Udalak parte hartu duten guztien artean, eta honakoei egokitu zaizkie: Fahd Chikr (LH2), Endika Cabrerak (LH4), Naroa Rodriguez (LH5), Nora Txurruga (LH6), Marina Fernandez (DBH1) eta Sarah Yanire (DBH2).

Epaille lanetan, berriz, honako hauek jardun dira: Iñaki Goitia, Aitor Etxeberria, Gorka Larrañaga, Nerea Isasi, Maite Apellaniz eta Nerea Larrañaga.

## Gaur jarriko dituzte salgai Zea Mays taldearen kontzerturako sarrerak



Zea Mays talde bilbotarrak Elgoibarren joko du martxoan. Hilaren 19an, bi kontzertu emango dituzte Herriko Antzokian, bata 17:00etan eta bestea, 19:30ean. Kontzerturako sarrerak gaur jarriko dituzte salgai, 20:00etan, Kutxabanken webgunearen bitartez. Bihartik aurrera, Herriko Antzokiko leihatilan erosteko aukera ere egongo da, asteburuetan, zine emanaldiak irauan artean. Zea Mays 1997an sortu zuten Bilboko Errekalde auzoan, eta 20 urte baino gehiago daramatzate kontzertuak ematen.

## Hamalau ordu eta 50 minutuan gauzatu du Juanan Martinek mendiko zazpi maratoi erdi astebetean egiteko erronka

Astelehenetik domekara, astebetean, egunero maratoi erdi bat egitea. Horixe zen Juanan Martinek bere buruari jarri zion erronka, eta lortu du. Gainera uste baino hobeto amaitu du, egunetik egunera sentrazio hobeeekin, bigarren egunean bertan behera lagatzea burutik pasatu zitzaion arren.

Egunero errutina bera errepikatu du: Txarriduna Hoteletik irten, Karakateraino igo, eta handik Irukurutzetaraino joan-etorria egin Atxolinetik pasaz, bai joanekoan eta bai bueltakoan. 21 kilometro guztira. Egun bakoitzeko ibilbidea egiteko bi ordu eta hogeituro denbora behar izan du, batez beste. Eguaztenean, hirugarren egunean, egin zuen itzulirik azkarrena, bi ordu eta bi minutuan hain justu ere. Eta hori eguna zalantzekin hasi zuela. Izan ere, lehen egunean "sentsazio oso onak" izan zituen eta bigarren eguneko erritmoa bizitza erabaki zuen, bereziki jaitsieretan. Bizkar aldean muskulu-uzkurdura bat igarri zuen ordea, eta kezkatuta joan zen ohera martitzen iluntzean. "Erronka bertan behera laga beharko nuela ere pasa zitzaidan burutik", dio. Zorionez, usteak erdi ustel, hurrengo egunean denak emanda aritu baitzen korrika. "Kontu handiz hasi nintzen, baina behin berotuta arazorik gabe aritu nintzen. Gainera, laguntzailerik gabe aritu nintzen egun bakarra izan zen asteazkena, eta erritmo bizian egin nuen itzulia". Orohar, zazpi egunetan mantendu du erritmo bizi hori. "Kilometroa sei minutu eta hamar segundoan atera zait, batez beste, eta hori erritmo bizia da zazpi egunez jarraian mantentzeko". Karakterainoko igoeretan ere erregularatasuna erakutsi du. 50 minutuan egin ditu igoera gehienak, eta batzuek 48 minutuan ere bai. Astebetean 147 kilometro antxitxika egin ditu, eta 7.600 metroko desnibel positiboa metatu du.



### Beste herri batzuetako kirol instalazioak erabiltzeko aukera dute patronatuko abonatuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko urteko abonoa dutenek beste herri batzuetako kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute Mugiment Kirol Txartelarekin, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 40 herri baino gehiagotako 70 kirol-instalazio, hain zuzen ere. Mugiment Kirol Txartela Euskal Herri osoan ezartzen ari den txartel birtuala da, mugikorrerako 'app' bat. Eusko Jaurlaritzak eta hiru lurraldeetako Foru Aldundiek sustatutako proiektua da, parte hartzen duten udalerriekin batera. Informazio gehiago [www.kiroltxartela.eus](http://www.kiroltxartela.eus) webgunean.

### Udal Kirol Patronatuko ikastaro berriak probatzeko aukera dago izena eman baino lehen

Hainbat ikastaro berri martxan jartzeko asmoa du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak martxoan, eta horiek zelakoak izango diren probatzeko doako saioak antolatu ditu, martxoaren 9tik 11ra. Honako ikastaroak prestatu dituzte: *Emakume korrikalariak* ikastaroan emakumeak taldean arituko dira korrika Mintxetan, irakasle baten gidaritzapean. Nolakoa izango den probatu nahi dutenek martxoaren 10ean izango dute horretarako aukera, 17:30ean Mintxetan agertuta. *Entrenatu kalean* ikastaroan entrenamendu funtzionala landuko dute aire librean. Izena eman aurretik probatzeko bi saio antolatu dituzte: martxoaren 9an, asteartean, 18:00etan, eta martxoaren 11n, osteguna, 9:15ean, biak Mintxetan. TRX ikastaroaren helburua gorputza indartzea eta tonifikatzea da eta jarduera hori probatzeko saioa martxoaren 9an egingo dute, bi ordutegitan: 15:00etan eta 19:00etan. Azkenik, GAP ikastaroan ipurmasailak, muskulu abdominalak eta zangoak indartzeko ariketak landuko dituzte. Probatzeko saioa martxoaren 11n izango da, 15:00etan, Olaizaga kiroldegian. Saio horietan parte hartzeko ezinbestekoa da izena ematea, Olaizaga Kiroldegiko zein Mintxetako harreraren, edo 943 744 415 telefono zenbakira deituta.

*"Urtxintxa basoan"*



Nora Salvatierra Alkorta,  
8 urte, Elgoibar



*"Martintxo"*



Lea Barrutia Cristobal,  
8 urte, Elgoibar



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan eta asteburuetan lan egiteko prest nago. Papelak legez ditut, eta erreferentzia onak. ☎ 643 601 205

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka.

☎ 643 772 326

Adinekoak zainduko nituzke, orduka.

☎ 620 712 478

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka, eta gabez ere bai. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

☎ 683 580 665

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Baserrietan ere bai.

☎ 602 407 338

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Etxeak, lantegiak edo bulegoak garbitzeko ere prest nago.

☎ 632 238 016

**Eskaintza**

BPXport enpresak lagun bat behar du Olai zaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko garbiketa lanak egiteko. *Elgoibar@bpxport.es* helbidera idatzi behar da.

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu.

☎ 680 489 416

**ETXEBIZITZA.....**

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

**GARAJEAK.....**

Garaje bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren epe luzerako.

☎ 643 372 825

Garajea erosiko nuke Bernardo Ezenarro kalean, Eroski aspian.

☎ 666 269 636

**BESTELAKOAK.....**

Bizikleta estatikoa salgai. Gutxi erabilia; berri-berri dago. 50€.

☎ 645 729 230

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euskal Herriko Administrazioaren Kontseilua

**Gure komunitatean urteak dira ez dugula fatxada berritzeko obrarik egin, bileretan sekula ez dugulako gai horren inguruan erabakirik hartzen eta hurrengo batean aztertzekeo lagatzen dugulako beti. Niri iruditzen zait berritzeko premia duela fatxadak, zati batean oso hondatua dagoelako. Jakin nahiko nuke nola landu behar dugun gai hau batzarretan erabakiren bat hartu ahal izateko.**

Mantendu lanak egitea komeni denetan administratzaileak presidenteari eskatu behar dio obrak lehenbailehen hasteko eta hark bizilagunei, gerta daitekeelako mantenu lanak ez egiteagatik fatxadako zatiren bat-edo jaustea. Obra egin beharraz ohartarazi arren, presidenteak kasurik egingo ez balu, bera izango litzateke gerta daitekeenaren erantzule, beti ere, jakina, ohartarazpen hori egon dela baieztatuko balitz eta presidenteak obra hori eginarazteko jarraitu beharreko pausoak eman ez dituela frogatuko balitz. Obra atzeratzea bizilagunek eurek erabaki badute batzarrean, bizilagunak izango dira gerta daitekeenaren erantzule.

**AHOLKUA: Legeak dio ezinbestean egin behar diren obrak kasuan ez dela batzarren onespenez behar aurrera egiteko. Presidenteak erabakiko du egin edo ez. Hori bai, batzarrean aztertu behar dira aurrekontu ezberdinak eta haiek aukeratuko dute zein aukeratu. Obra hori egitea eskatzen duena Administrazioa denean, batzarrak ez du zeresarik izango gain.**



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Jone!** Badituzu 8 urte dagoeneko! Muxu pila eta besarkada handi-handi bat familiako guztion partez.

Zorionak, **Ariane** igandean 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna eta muxu asko familiako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



## II. URTEURRENA

### *Angel Mari Casado Rebollo*

2019ko martxoaren 4an hil zen, 56 urte zituela.

*Ezin ikusi, baina bai sentitu.*

*Joan zinen arren, gure bihotzean beti zaude bizirik.*



Eskertzak eta urteurrenak  
**943 743 704 / 688 769 657**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

## I. URTEURRENA

### *Maritxu Marconi*



***Betirako nere bihotzean, ama.***

2020ko martxoaren 6an hil zen, 83 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, martxoaren 7an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

## 5 BARIKUA

**10:00-13:00/17:00-20:00** Stock kale azoka. Txankakuaren dendetako atarrietan.

**17:30/20:30** Odol ateratzeak Mendaron. Ikastolan. Odola emateko ordua eskatu behar da 688 780 471 telefono zenbakira deituta.

## 6 ZAPATUA

**10:00-13:00/17:00-20:00** Stock kale azoka. Txankakuaren dendetako atarrietan.

**12:30** Sustrai akordeoi taldekoen kontzertua. Herriko Antzokian.

**19:00** Antzerkia: 'Birritan bortxatua'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 7 DOMEKA

**Egun osoan** Erakusketa: 'Emakumea naiz eta harro nagor'. Mendaroko frontoian.

**12:30** Kontzertua: Saioa Lizarralde eta Maddalen Arzallus. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 10 EGUAZTENA

**19:00** Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

**19:00** Hitzaldia: 'Emakumeak eta migrazioa'. Hizlariak: Andrea Ruiz Baltzola eta Maya Amrane. Mendaroko udaletxeko Udalbatza aretoan.

## 11 EGUENA

**19:00** Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

## 12 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Elisa y Marcela'. Herriko Antzokian.

## Zinea (Herriko Antzokian)



'Entre nosotras'  
5 barikua: 19:00  
6 zapatua: 19:00  
7 domeka: 19:00  
8 astelehena: 19:00



'Fritzi,  
un cuento revolucionario'  
7 domeka: 16:30

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

5 BARIKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guzian, gauz: 22:00-09:00**  
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)  
943 201 912




## Marina Portilla Perelló

2021eko otsailaren 25ean hil zen, 93 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Bibi Gurrutxaga San Martin

2021eko otsailaren 27an hil zen, 73 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Bibi

**Gure artetik joan zarenean  
irripar goxo batekin  
lagun artean izango zara  
izarren distirarekin.**

*Mila, Santi, Maite, Edorta, Karmele eta Agustin*



## Manuel Osoro Unanue

2021eko otsailaren 28an hil zen, 75 urte zituela.

**Maitasunez, Osoro-Igartua familiak.**



I. URTEURRENA

## Begoña Oñederra Ansola

*"Garro"*

2020ko martxoaren 3an hil zen, 76 urte zituela. Haren oroimenez  
I.urteurreneko meza izango da, domekan, martxoaren 7an,  
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



II. URTEURRENA

## Santiago Carrascosa Camacho

2019ko martxoaren 4an hil zen, 78 urte zituela.

**Ezin ikusi, baina bai sentitu.  
Joan zinen arren, gure bihotzetan beti zaude bizirik.**

*Zure seme-alaba eta bilobak.*



# UDABERRIKO OPORRALDIA 2021



## FAMILIA EKINTZA

### HERRIKO SEKRETUAK Orientazio froga familian

Martxoak 31  
10:30-13:30  
Kuota 6€ famiako (bazkideek, 5€)  
Plaza mugatuak



## LH1-3

### MENDI IRTEERA

Gure arbasoak ezagutzen  
(Hezur museoarekin elkarlanean)

Martxoak 29  
10:30 - 16:30  
Kuota 12€ (bazkideek, 11€)  
Plaza mugatuak

### ZIENTZIAREKIN JOLASEAN

Apirilak 6  
10:30 - 13:30  
Kuota 6€ (bazkideek, 5€)  
Plaza mugatuak



### HAURREN HERRIA talde jolasa

Apirilak 8  
10:30 - 16:30  
Kuota 12€ (bazkideek, 11€)  
Plaza mugatuak



ZER GEHIAGO EGIN NAHI DUZUE EGUN PASETAN?  
IZENA EMATEN DUZUENI GALDETEGIA PASAKO DIZUEGU.

\*IZEN EMATEA BANAKA, BINAKA EDO HIRUNAKA EGIN DAITEKE

## LH4-6

### MENDI IRTEERA Balizen bila

Martxoak 30  
10:30 - 16:30  
Kuota 12€ (bazkideek, 11€)  
Plaza mugatuak



### ZIENTZIAREKIN JOLASEAN

Apirilak 7  
10:30 - 13:30  
Kuota 6€ (bazkideek, 5€)  
Plaza mugatuak



### HAURREN HERRIA Argazki rallya

Apirilak 9  
10:30 - 16:30  
Kuota 12€ (bazkideek, 11€)  
Plaza mugatuak



ZER GEHIAGO EGIN NAHI DUZUE EGUN PASETAN?  
IZENA EMATEN DUZUENI GALDETEGIA PASAKO DIZUEGU.

\*IZEN EMATEA BANAKA, BINAKA EDO HIRUNAKA EGIN DAITEKE

## IZEN EMATEA

Martxoak 5-14

- [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)
- Elgoibarko Izarraren bulegoan
- Ludotekan

Plaza mugatuak

## UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Informazioa Udalean  
943741050 (gazteria)  
gazteria@elgoibar.eus

## INFORMAZIO GEHIAGO

Elgoibarko Izarra  
Aita Agirre kulturunea 3, 3. azk  
943 74 17 46  
[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)  
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Elgoibarko Ludoteka  
Gabriel Kurutzelaegi, 6  
943 74 88 83 /  
656740793  
ludoteka@elgoibar@gmail.com

